



## **2012KO URTARRILAREN 13KO TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabiko urtarrilaren hamahiruan, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti, Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

### **I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2011ko abenduaren 16an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

### **II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2011ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 32 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA HAMABOST MILA ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA LAUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (95.089,93 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

### **III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-**

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

#### **Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-**

- 11-01-021 zbk.dun esped.: etxebizitza gastuetarako prestazio osagarria jasotzen hasi da eta hau bateraezina da gizarte larrialdietarako laguntzarekin eta beraz alokairu gastuak ordaintzeko diru-laguntzatik baja ematea.

#### **Esku-hartze familiarra.-**

- 10-15-01 zbk.dun esped.: esku-hartze familiarra 6 hilabetez luzatzea. Luzapen honen kostuak 2.827,44 euroko aurrekontua dauka.

### **IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-**

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

#### **San Benito Ikastolari dirulaguntza.-**



Jardueren garapenerako udal honek San Benito Ikastolarekin izenpetutako hitzarmenaren barruan 2011 urteari dagokion dirulaguntzaren bigarren zatiaren ordainketa onartzea proposatzen da. Bigarren zati honen zenbatekoa 12.761,50 € da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

Lazkao Txiki Musika Eskolari dirulaguntza.-

Lazkao Txiki Musika Eskolari, bere izenean aurrekontuan aurrikusitako dirulaguntzatik eta bere gastuei aurre egiten joateko, 4.100 €ko lehen zatia ordaintzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

Lazkaoko Beneditarren Artxibategia Fundazioari dirulaguntza.-

Lazkaoko Beneditarren Artxibategia Fundazioari bere izenean aurrekontuan aurrikusitako dirulaguntzatik eta bere gastuei aurre egiten jaoteko, 8.000 €ko lehen zatia ordaintzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

V.- KOMUNIKAZIO ETA PARTEHARTZE DIRULAGUNTZAK .-

Goierri Telebistari dirulaguntza.-

Goierri Telebistarekin, biztanleko bi euroko dirulaguntza emateko izenpetuta dagoen hitzarmenaren barruan, 2011ri dagokion 5.203 €ko ordainketa egitea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

Goierriko Hitzari dirulaguntza.-

Goierriko Hitzarekin, biztanleko bi euroko dirulaguntza emateko izenpetuta dagoen hitzarmenaren barruan, 2011ri dagokion 5.354 €ko ordainketa egitea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposamena onartu egiten du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta bost direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



*[Handwritten signature in blue ink]*